

GAROA GARTZIANDIA ETA ANE ITURBE - 'SEX-DROG' TAILERRA

"Gure asmoa da gazteek sexua eta drogen inguruan dituzten kezkak eta galderak erantzutea"

■ Gazte Txokoan ostiralero bi orduz sexua eta drogei buruz hitz egiten dute bertako gazteekin ■ 12-16 urte bitarteko gazteak dira eta oso erantzun ona jaso dutela diote ■ "Gazteek hutsunea dute gai hauei buruzko heziketan".

GAROA Gartziandia eta Ane Iturbe Txokoan ostiraletan egiten duten 'Sex-Drog' tailerreko arduradunak dira. Gazte Txokoko hezitzaileak konturatu ziren gazteek hutsuneak zituztela sexua eta drogaren inguruko heziketan eta Askagintzarekin harremanetan jarri eta tailer hau antolatu zuten. Garoak eta Anek bi hilabete daramazkite, ostiralero bi orduz, 12 eta 16 urte bitarteko gazteek sexua eta drogaren inguruko kezka eta zalantzetaz hitz egiten. Beraien asmoa da gazteek gai hauen inguruan dituzten kezkak argitzea baina beraiek ere asko ikasten ari direla diote.

■ Nola sortu zen tailer hau egiteko idea?

Hernanin gazte talde bat noizean behin elkartzen ginen sexua eta drogei buruz hitz egiteko. Bilera hauek Askagintzaren bidez antolatu genituen eta beraien lokalean biltzen ginen. Bestetik, Gazte Txokoko hezitzaileak konturatu ziren gazteek gai hauen inguruko heziketan hutsune bat zutela, eta hutsune hori betetzeko asmoz tailer hau antolatzea erabaki genuen.

■ Zer zerbitzu ematen du 'Sex-Drog' tailerrak?

Beraiek sexua eta drogei buruz dituzten kezka eta dudak jaso eta gai horiek landu egiten ditugu. Gure asmoa da beraiek informazio on bat jasotzea sexua eta drogaren inguruan, askotan beraiek duten informazioa faltsua edota mitoz betetakoa izaten baita.



Ane Iturbe eta Garoa Gartziandia.

"Beraiek gurekin ikasten ari diren bezala, gu ere beraiekin asko ikasten ari gera"

■ Zein adineko gazteak dira tailerrean aritzen direnak?

Erantzuna oso ona izan da, uste baino askoz hobea. Hasieran beldurra genuen, gai hauen inguruan gazteak askatzea oso zaila izaten baita. Baina orain giro oso polita dago tailerrean eta hemengo

hezitzaileek ere esan digute giro ona ikusi dutela.

■ Zein paper betetzen dute gazteek tailer honetan?

Paper guztiz aktiboa dute gazteek. Gu tailerrera joaten gara beraien nahiak asetzera. Beraiek gurekin ikasten ari diren bezala, gu ere beraiekin ikasten ari gara. Denak batera gaude ikasten, ez gatoz txapa bat botatzera.

■ Zein kezka mota dituzte adin honetako gazteek sexua eta drogen inguruan?

Oraingoz sexualitatea gehiago landu dugu drogen gaia baino. Gazteenak, 12-14 urte

bitartekoak, oso motibatuta daude, adibidez, ligatzeko teknikei buruz egingo dugun saioarekin. Zaharragoek masturbazioari buruz, lehenengo aldiaren minei buruz egiten dizkigute galderak. Drogei buruz galdera gutxiago jaso ditugu. Gazteenek porroak eta tabakoari buruz egin digute galderaren bat. Helduagoek egin dizkiguten galderak izan dira: ia egia den tripiak begitik kontsumitu daitezkeen, poppersak...

"Garrantzitsua da gai hauei buruz informazio ona edukitzea, zure aktoetan kontziente izateko."

■ Zer garrantzi du sexua eta drogaren inguruko informazio ona edukitzeak?

Gero zure aktoetan kontziente izatea zertan ari zaren eta konturatzea nahi baten ondorioak zeintzuk diren. Informazio ona edukitzea oso garrantzitsua da baita ere mitoak eta beldurrak alde batera uzteko, eta lasaiago ibiltzeko.

■ Gazteek gaur egun sexua eta drogen inguruan ze informazio jasotzen dute?

Behin galdetu genien ikastolan zer ematen zuten gai hauen inguruan eta ugalketa ematen zutela erantzun zигuten. Gurasoekin ere zertxobait hitz egiten dute batzuk, baina, oso zaila egiten zaie beraiekin gai hauei buruz hitz egitea. □

Festa extremeñoa gaur Latsunben

EXTREMADURARI buruzko jardunaldiak dira atzo eta gaur Hernanin, eta gaur, egun guztiko festa dago Latsunbeko kirol pistan. Goizean, 10:00etarako karpa irekia egongo da eta artisau lanak, jan eta edateko produktuak, liburuak eta informazio turistikoa egongo da. Eguerdiko 13:00etan Virgen de Guadalupe dantza eta kantu taldearen emanaldia izango da eta arratsaldeko 17:30etan ere bai. □

■ BOLEIBOLA

Igoera faseko partidua asteburuan

HERNANIKO mutilen boleibol taldeak igoera faseko bi partidua jokatu ditu asteburu honetan. Atzo Logroñon zuten Universidad Rioja taldearen kontra eta Hernanin, Berezi Gasteiz taldearen kontra, 11:00etan. □

■ ERRUGBIA

Hernani-Xestur gaur

HERNANIK mailaz igotzeko partidua jokatu du gaur Landaren, 12:00etan, Galiziako Xestur taldearen kontra. Ohorezko B mailara igo liteke Hernani eta aspaldiko urteetan Hernaniko taldeak jokatu duen partidurik garrantzitsuenak da gaurkoa. Horregatik, Errugbi taldeak dei egin die herritarrei Landarrera azaltzeko taldea animatzera. Hernanik 11-27 irabazi zion Xestur taldeari Galizian eta 16 tanto horien aldearekin jokatu du gaur. □

Batzarra gaur, Ur-Mia eta Txantxangorri

UR-MIA eta Txantxangorri elkarrekin batzarra dute gaur. Ur-Miak urteko batzarra egingo du eta bi deialdi egin ditu: lehenengoa 10:00etan eta bigarrena 10:30etan.

Txantxangorrik batzar berezia du zuzendaritza berria aukeratzeko. Deialdiak: 09:30etan eta 10:00etan. □

SANTA BARBARA
PEUGEOT



Tailerrak: Larramendi 15 - Exp: Arantzazu 15 ☎ 943 551139 / 943 551979
Auto eta furgoneta zaharrak, 2. eskukoek aldatzen ditugu

Modelo	Motor	Transmisioa	Prezioa	Bestelakoak
307 SW	HDI 110	CFL	17.730 €	(2.950.000 pzta)
206 GTI metaliz.	2.0	BPB	11.420 €	(1.900.000 pzta)
206 X-LINE 5ate	1.2	CMH	9.600 €	(1.597.000 pzta)
Rover 45	2.0 TDI	SS-BK	9.016 €	(1.500.000 pzta)
SAAB Coupe 900 S	2.0	2883 BJR	5.812 €	95-80 (967.000 pzta)
406 SRDT	1.9 Diesela	SS-AY	4.808 €	97 (800.000 pzta)
Ford Escort	TD	SS-AY	4.507 €	97 (749.000 pzta)

... eta hainbat beste merke

LARUNBAT GOIZEAN IREKITA DAGO

GARMENDIA
HORTZ KLINIKA



ODONTOLOGIA OROKORRA

TXIRRITA KALEA 13-1ª EZK.
TEL.: 243 55 34 22

Roberto Dos Santos - FISIOTERAPEUTA
Kol. Zkia: 313

Fisioterapia

KIMERA
Fisioterapia zentru berria Antzolan

LESIO TRATAMENDUAK:

- Traumatologikoak
- Esgintzeak, kontrakturak,...
- Reumatologikoak
- Tendinitis, artrosiak,...

TRATAMENDU TEKNIKAK:

- Osteopatia
- Eskuzko terapiak
- Elektroterapia
- Termoterapia: ultrasonidoak, "onda korta",...
- Masajeak: terapeutikoak eta kirol masajeak

Neurologikoak
hemiplejiak, paralisia,...

Kirol lesioak
Fibra hausturak, sobrekargak,...

Istripu aseguruak eta etxeko atentzioa
KIMERA Fisioterapia - Antziola 16 behe (Gunearen aurrean) - Tel.: 943 556 427

Udalak Portaletxokoko mugarrria kendu du puskatu eta botea azaldu delako

■ Uste dute XVIII mende bukaeran jarritako mugarri kilometrikoa izan litekeela eta dokumentazio ezberdina aztertzen ari dira mugarrria identifikatzeko.

MARTXOAREN 19an Portaletxokon (Udaletxe atzean) zegoen mugarrria kendu egin zuten, bezperan puskatu eta lurrera bota zutelako. Udal mugarrria identifikatu nahian dabil, dokumentazio desberdina aztertuz. Badirudi hau dela XVIIIgarren mende bukaeran Gurutze Santuko umildegia- ren ermita lekuz aldatu zute- nean, ireki zuten bideko mu- garria; bide hau posta eta autoentzako bidea zen. Pen- tsatzen da XVIIIgarren men- deko mugarrria dela, baina, lehenagokoa ere izan daiteke Udalak adierazi duenaren ara- bera. Udalak informazioa bil- tzeaz gain konpondu egin nahi du mugarrria eta asmoa du, berriz ere, jatorrizko tokian jartzeko.



Portaletxokoko mugariaren jatorrizko lekua.

Txikizio gehiago

Udalak salatu du txikizio gehi- ago ere izan direla azken aldian herriko zenbait lekutan. Herri- ko ondarearen parte diren gau-

zak azaldu dira puskatuta sala- ketaren arabera: Portaletxo- koko mugarrria, Inglesaren ha- rria, elementu megalitikoak, eta herriko mobiliarioa. □

Jubilatu Etxeak 10 eguneko eskurtsioa antolatu du Santander eta Asturiasera, maiatza-ekainean

■ Santander, Oviedo eta Gijon hiriak bisitatzeaz gainera, Covadonga, Cangas, Picos de Europa eta beste zenbait paraje ikusteko aukera izango da.

GOIZ Eguzki Jubilatu Etxeak 10 eguneko eskurtsioak anto- latzen ditu udaberrian eta udazkenean. Aurten, Santan- der eta Asturiaseko paraje ederrak ikusteko aukera izan- go dute, maiatzak 25etik ekai- naren 4ra bitartean. Lehen- dabiziko bi egunetan Santan- der eta Oviedo ezagutuko di-

tuzte gia baten argibideak en- tzunez. Handik aurrera Astu- riaseko bazterrak ezagutzeko aukera izango dute: Mieres, Pola de Lena, Cangas, Picos de Europa, Ribadesella, Gi- jon, Lueca, Covadonga eta Redeseke parke naturala, bes- teak beste. Gauak Oviedon pasako dituzte.

Eskurtsioaren prezioa 400 euro da, autobusa, otorduak eta loa barruan direla.

Sorteoa apirilaren 14an

Jubilatu Etxeak adierazi du eskurtsiorako zozketa apiri- laren 14an izango dela, asteaz- kena, arratsaldeko 17:00etan, betiko lekuan. □

JASOTA BEZALA

Garraio publikoa oinarritzko eskubidea da!

Igo dute berriro ere, autobusean ondoko herrira joateko prezioa. Hernanitik Donostira, Urnietara, Andoainera, Astigarragara... joa- tea garesti ateratzen zaigu, oso garesti, egunero erabili ezkeru eta bidaia bat baino gehiago

eginda, hilean 76 euro ordaindu behar izaten da.

Garraio publikoaren prezioak desproporzionalak dira, gutxiene- ko gizarte soldatarekin alderatzen badugu; luxu bilakatzen ari da autobusa hartzea. Garraio zerbi- tzuak eskuragarri izan behar du, eguneroko erabiltzaileentzat bo- nobusa beharrezkoa da eta baliabi-

de gutxiko pertsonentzako lagun- tzak ere bai.

Azken igoera honekin, neu- rriak hartzeko garaia dela uste dugu eta zerbitzu publikoek badu- te honetan zereginik.

Prezio eskuragarriak behar ditugu!

Zaloe Ruiz

Elkartzen taldeko kidea

DOBERA SARIA II.EDIZIOA

3.000 EUROKO DIRU LAGUNTZA

HERNANIRI BURUZKO LAN BAT SARITUKO DA:

- Banaka zein taldeka egin daiteke.
- Lana euskaraz izango da.
- Lana egiteko epea: 6 hilabete.
- Proposamenak aurkezteko epea *apirilaren 30a*.
- Agiri guztiak Dobera Elkartera bidali behar dira. (Larramendi - 11 ; Telf: 943 332799)

✓ BERTSOLARITZA

‘GR 4’ bertso txapelketa gaur Orion. GR 4 txapel- keta jokatzten ari dira Hernani, Orio, Lasarte eta Oiartzungo bertso eskolak. Txapelketa liga modura dago planteatuta eta denek denen kontra jokatu behar dute joan etorrian. Hernanik gaur du bigarren saioa Orioren kontra, Orion bertan, arra- tsaldeko 18:00etan. Hernaniko bertso eskolatik joango diren hiru bertsolariak dira: Iñaki Zelaia, Joxe Angel Aranburu eta Xabier Legarreta.

✓ MENDI IRTEERA

50 urte Argarateko Harrietan buzoia jarri zela.

Gaur betetzen dira 50 urte Zaburu edo Argarateko Harrietan buzoia jarri zela. Hernaniko *Kaiku* izeneko lagun koadrilak jarri zuen buzoia Zaburun eta hori ospatzeko gaur mendi irteera antolatu dute. Goizean mendi buelta egingo dute Zaburura eta ondoren bazkaria Txantxangorri elkartearen. Kaiku taldeko kideak honakoak dira, besteak beste: Arturo Rodriguez, Jose Garcia, Xabier Sistiaga (+), Felix Aranburu, Jaime Gonzalez, Cesar Gonzalez (+), Jose Etxarri, Juan Jose Telleria (+), Juan Miguel Irizar...

✓ PELOTA

Hernaniko pala txapelketako partiduak gaur.

Asteburu honetan Hernaniko pala txapelketako partiduak dira kiroldegian. Joan den asteko emaitzak honakoak dira: Asier Juan Mari 30 / Iñaki-Ibai 16; Mañel-Ekaintz 20 / Oscar-Ivan 30; Paco- Manu 30 / Nani-Jonkar 20; eta Lujanbio-Imaz 30 / Aitzol-Mikel 13. Gaur honako partiduak jokatu dira, 10:30etan hasita: Asier- Juan Mari / Xabier-Eñaut; Mañel-Ekaintz / Unai-Joseba; Oscar- Ivan / Nani-Jonkar; Iñaki-Ibai / Imaz-Gonzalez.

✓ WATERPOLOA

Hernani-Menditxo gaur kiroldegian.

Hernanik bi partidu jokatu ditu gaur, Euskal Ligaren barruan. Hernaniko kiroldegian Hernanik Menditxoren kontra du 12:00etan. Leioan berriz, 13:00etan Hernani eta Leioa neurtuko dira.

✓ ZINEA

Haur Zine Emanaldia eta ‘Gothika’ pelikula.

Gaur arratsaldean zine ordua dute Biterin. 17:00etan Haur Zine Emanaldia izango da eta 19:30etan Gothika pelikula. □

ESKERTZA

Orain gutxi Hernanin hil zen
Agustin Ijurko Ansola

- Goian Bego-

Haren emaztea, seme-alabak eta gainerako ahaideek asko eskertzen dizute samin- agurra bidali zenutenei eta baita bere hiletara etorri zineten guztioi ere.

Hernanin, 2.004ko apirilaren 4an

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

►Taxiak: 943 550093
►Udaltzaingoa: 943 333288
►DYA: 943 464622
►Autobusak: 943 556662
►Anbulatorioa: 943 006666
►Jokalaria anonimoak: 943 331103

☎ FARMAZIAK

►Egunez: Aizpuru
Latsunbeberri 11
☎ 943 336077
►Gauetz: De Miguel
Lasarte. Nagusia 32
☎ 943 361556

IRAGARKI MERKEAK

Hernani inguruko jatetxe batean barrarako zerbitzari bat behar dugu. Ibilgailua behar da. Deitu: 943 55 02 54 (astelehenetik-ostiralera) edo 608 12 07 32

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta berte- brala, reflexologia, auriculoterapia,...: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Sta Barbara 42)

XX MUS TXAPELKETA

ARALAR

TABERNA

ASTEKO PARTIDAK

<u><i>Astelehena, apirilak 5</i></u>	<u><i>Astearte, apirilak 6</i></u>
Joxe - Axier / Patxi A - Patxi B Kolonbo - Txema / Katu - xx Balanxta - Balanxta / Niko - Paste Pablo - Josetxo / Haritz - Urko	Martin - Urtzi / Inaxio - Joseba Jabier - Pello / Iñaki - Arribi Imanol - Jesus / Xabier - Iñaki Zalaika - Uria / Arkaitz - Pako